



Mintzodromo virtual modukoak ere antola daitezke. TOPAGUNEA

gu momentuko zerbait dela. Ahalik eta ondoen antolatzen saiatu gara, baina ahalik eta azkarren itzuli nahi dugu betikora».

Lehentasuna, harremanek

AEKren Praktikatutako mintzapraktika egitasmoaren koordinatzailea da Edorta Lopez, eta gogoan du nola orain dela hilabete, «egoera alarma ezarri eta asteburu hartan bertan» hasi ziren erantzuna

prestatzen, herriz herri, taldeen ardura duten 35 koordinatzaileak eta jarraipen batzordeak. «Haiek dakite nolakoak diren taldeak eta zein den bakoitzari ondoen egokitzen zaion soluzioa», dio.

AEKren egitasmo honen baitako saioetan, gainerakoetan bezalatsu, Skype eta Whatsapp bidezko bideodeiak dira izarra, baina komunikazioa bideratu dezakeen ezin baliabideri ez diote muzin

egiten. «Badugu 73 urteko andre bat, kanpokoekin komunikatzeko tresna bakarra etxeko telefonoa duena. Ba horixe erabiltzen dugu», azaldu du, adibide gisa.

Zeren eta beti, eta batez ere orain, harremanek dute lehentasuna Edorta Lopezen eta AEKren ikuspegitik. «Urrutiko harremanetan egoera berri honi buelta emateko modua ikusi dugu» esaten duenean ez da soilik ari mintzapraktika saioez, «mintza taldeak ez direlako euskara praktikatzeko talde hutsak. Harreman taldeak ere badira, eta erakutsi behar dugu pertsonak direla inportanteena». Beti hor egon diren pertsonak, eta asteotam hurbiltzen ari zaizkien berriak.

Borborka dute sormena. #Ez-GaituMututuko traolari erreparatzea nahikoa da taldeek ze martxa duten eta zenbat jarduera antolatzen dituzten ikusteko. Bide berriak ari dira irekitzen, eta «gu ere ari gara aukera berriak ikusten». Baina momentuz garrantzitsuenak da «lehiatila txiki hau humanitatea eta maitasuna erakusteko erabiltzea, batez ere bakarrik daudenei begira. Euskaratik asko eman daiteke arlo horretan».

Sarean eta sarerako sortu zen Mintzanetek bidelagunak behar ditu

Konfinamenduaren eraginez, ehundik gora bidelari berrik eman dute izena euskara on line praktikatzeko sortu zen doako plataforman

N. AZURMENDI

Mintzapraktika ekimenetan gazteenetakoa da Mintzanet, eremu horretako 'natibo digitala', sarean eta sarerako sortu baitzen 2012an. Maramara taldearen hizkuntza zerbitzuak kudeatzen du eta Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren laguntza du euskara on line eta doan praktikatzeko pentsatutako tresnak.

Apurka joan da hazten eta hedatzen: 2013an 1.527 saio egin zituzten, eta 2019an 8.907ra iritsi ziren. Taldeko giroa hobesten duten aurrez aurreko ekimenetan ez bezala, binaka burutzen dira Mintzaneteko saioak: gutxienez B1 maila izan behar duen bidelaria ordenagailuaren, tabletaren edo telefonoaren alde batean, eta bidelaguna «euskaldun jantzia» izatea da baldintza bakarra» bestean.

Konfinamendu egoera dela eta, asko handitu da bidelari kopurua: 56 berri izan zituzten martxoan, eta 58k eman dute izena apirilaren lehen bi asteetan (apirilaren 14ko datua da). Euskaraz aritu nahi duten 114 lagun gehiago, beraz. Hala ere, ekimenaren koordinatzaile Cristina Tapiak dioenez ezin izan die den-denei behar bezala erantzun, egoerak Mintzaneten defizit kronikoa areagotu duenez bidelagun faltan daudelako.

Beteranoenetakoa da Arantza Garaialde bidelagun donostiarra, zazpi urte baitaramatza baidakortasun kutsua duen euskara bizi-bizia eta denbora bidera iritetzen zaizkionekin partekatzen. Batekin hasi zen, bigarren bat hartu zuen, eta gauzak nola dauden kontuan hartuta hirugarren bati tokia egiteko prest dago.

Beste hainbat gauzatan ere badabilen Arantzak «maskarak josten harrapatu genuen, jo eta kezalantza izpirik gabe gomendatzen du esperientzia. «Astia eta gogoia behar dira, jakina, baina antolatzeko orduan oso malgua da, eta asko asebetetzen du euskaraz aritu nahi duenari laguntzea», nabarmendu du. Euskararen aldeko ale bat jartzea da, batetik, baina bizipen bezala ere aberasgarria omen da: «Aurrenekoarekin urteak daramatzat, oso-oso lagunak egin gara». Sistemari jartzen zaion erreparoa nagusia erabat ezeztatzen du: pantaila bidezko harremana hotza dela, alegia. «Pantaila, berez, ez da hotza, berotasuna jartzea norberaren esku dago», dio.

Belen Silva bidelari irundarra, berriz, aurten hasi da, euskaltegiko irakasleak iradokita, ezinezkoa zuelako taldeen ordutegietara egokitzea. Momentuz, telefonoz aritzen da bidelagunarekin, elkar ikusi gabe. «Alde ona bilatzen hasita, errazago kontzentratzen naiz, baina nahiago nuke aurpegia ikustea», dio. Hala ere, izugarri estimatzen du laguntza, «etxetik ezin irtenda nagoen egun hauetan hori delako euskaraz aritzeko aukera bakarra». Aitortzen du, barrez, beste bi ere badituela: bakarriketak eta kantuari esaten dizkion kontuak.

ESALDIAK

Maite Agirre
Topagunea

«Ahalik eta ondoen antolatzen saiatu gara, baina oso argi daukagu ahalik eta azkarren itzuli nahi dugula betikora»

Edorta Lopez
AEK

«Mintza taldeak harreman taldeak ere badira, eta une hauetan erakutsi behar dugu pertsonak direla inportanteena»

Arantza Garaialde
Mintzaneteko bidelaguna

«Hasiera batean ematen du aurrez aurre aritzea baino hotzagoa dela, baina berotasuna jartzea norberaren esku dago»

Belen Silva
Bidelaria

«Etxetik ezin irtenda nagoen egun hauetan, bidelagunarekin hitz egitea da euskaraz aritzeko aukera bakarra»